



Espediente zk./Nº Expediente: 2018SZUZ0002 **Erreg. data/**Fecha Reg: 2018/01/23
Erreg. zk. / Nº Registro: 759
Gaia/Asunto: HITZA - 2018KO HITZARMENA.
Eskatzailea/Solicitante: OIARTZUALDEKO HEDABIDEAK SL **NAN(IFK)/DNI(NIF):** B20811428
Kokalekua/Emplazamiento: ERRENTERRIA

ERRENTERRIAKO UDALA ETA OIARTZUALDEAKO HEDABIDEAK S.M.- REN ARTEKO HITZARMENA ZUZENENKO DIRU-LAGUNTZA EMATEKO

Bi mila eta hamazortziko _____

BILDU DIRA:

Alde batetik: Garazi Lopez de Etxezarreta, Errenteriako Udal Hizkuntza Politika saileko zinegotzi eskuordetua.

Eta beste aldetik, Lierni Ormazabal Insausti, identifikazio agiri zenbakia 72.448.259-F duena.

PARTE HARTZEN DUTE

Lehenengoak Errenteriako Udalaren izenean, Tokiko Araubidearen oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legean emandako eskumenez baliaturik, eta Alkateak eginiko eskuordetzeari jarraiki, 601 zenbakiko Dekretuaren bidez, 2015eko ekainaren 19koa.

Bigarrenak bere izenean eta Oartzualdeako Hedabideak S.M.-ren ordezkartzan, IFZ B-20811428 duena, eta helbidea Errenteriako Santa Klara kalea 22an duena.

Bi alderdiek elkarri, hitzarmen hau izenpetzeko bakoitzak duen gaitasuna eta konpetentzia aitortzen diote, eta hitzartzen dituzte ondorengoak.

AZALTZEN DUTE

I. Oartzualdeako Hedabideak S.M.-k argitaratzen duen Oarso Bidasoako Hitza euskarazko astekaria eta Oarsobidasoa.hitza.info webgunea komunikabide estrategikoak dira Errenterian euskararen erabileraren normalizaziorako.



II. Errenteriako Udalak ESEPein aurrera egiten duen neurrian, horrelako komunikabide batek lan garrantzitsua egin dezake egiten diren jarduerak oihartzun gehiago izan dezaten eta herritarrari hobeki hel dakion.

III. 2018an Oarsoaldeako HITZAren 15 urteurrena betetzen dela aintzat hartuta sustapen dinamika handi bat egingo da Errenterian eta eskualdean.

Bertako informazioa euskara irakurterrezean eskainiz, eskualdeko herritarrak euskaraz irakurtzen ohitzea da erronka.

Baina, jakina, euskaraz ekoiztea gain-kostuz beteriko jardura da, oraindik orain, gaur egungo errealitatean. Gainera ekonomia krisiak ez ezik, komunikabideek eredu krisi bat jasaten ari dira, batik bat internetek eta teknologia berriek komunikazioan eragin duten aldaketaren ondorio.

Euskarazko komunikabideek autofinantziazioaren bila ari badira ere, beharrezkoak dituzte oraindik erakunde publikoen diru-laguntzak.

IV. Udal Hizkuntza Politika Departamentuko zinegotzi ordezkariaren dekretu bidez, 2018/03/09koa, erabaki da Donostialdea Ikusentzunezkoak.S.A.-ri ematea zuzeneko diru-laguntza nominatiboa. Horretarako oinarritzat hartu da honako arauetan ezarritakoa:

- azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorren 22.2.a) art. -aurrerantzean, Legea.

- Errenteriako udalean diru-laguntzak ematea arautzeko udal ordenantzaren 11.1. a artikulua (2015eko abuztuaren 10eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala -150 zk.-) aurrerantzean, Ordenantza.

Azaldutakoaren arabera Errenteriako Udalak eta Oartzualdeako Hedabideak S.M. erabaki dute hitzarmen hau sinatzea. Hitzarmena ondorengo klausulei jarraiki arautuko da, bertan jasotzen baitira aldean baldintzak eta konpromisoak diru-laguntza ematea burutu dadin.

KLAUSULAK

Lehenengoa: Hitzarmenaren xedea

Dekretuaren bidez emaniko diru-laguntzaren nondik norakoak zehazten dituen hitzarmen honen xedea hitzarmen esparru bat ezartzea da Errenteriako Udala eta Oartzualdeako Hedabideak S.M.-ren artean, Euskararen normalizazioaren bidean euskarazko komunikazio esparrua osatzea eta garatzea finantza dadin, eta, modu horretan, aldeak baldintzak eta konpromisoak eratu ditzaten.



Bigarrena: Aurrekontua eta finantzazioa

Diru-laguntzaren gehieneko diru-kopurua 26.000,00 eurokoa izango da, aurrekontuko 1030.471.03.335.10 (7651) partidaren kontura. Partida hori aurreikusi da Errenteriako Udalaren Aurrekontua Orokorrean 2018. urterako.

Hirugarrena: Hitzarmenaren iraupena

Hitzarmen hau indarrean sartuko da sinatzen den egunean eta 2018-12-31n amaituko da.

Laugarrena: Errenteriako Udalaren konpromisoak

Hitzarmen honi jarraiki Errenteriako Udalak harturiko konpromisoa hauxe da:

a) 26.000 euroko diru-laguntza ordainduko da, eta era honetan

- Diru-laguntzaren %80, hau da, 20.800,00 €, hilabeteke epean hitzarmena sinatzen denetik.
- %20, hau da, 5.200,00 €, proiektua gauzatu eta horren justifikazioa aurkeztu ondoren.

Bosgarrena: diru-laguntzaren entitate/pertsona onuradunak harturiko konpromisoak

Hitzarmen honi jarraiki diru-laguntzaren pertsona onuradunak harturiko konpromisoak honakoak dira:

a) Euskararen normalizazioaren bidean, euskarazko komunikazio esparrua osatzea eta garatzea helburu duen proiektua garatuko du, eta urtean zehar egin asmo dituen egitasmoak aurkeztuko dizkio Udalari.

Oarso Bidasoako Hitzak Udalaren babesa argi adieraziko du paperezko argitalpenean nahiz webgunean.

b) Beharrezko diren udal baimenak edo bestelakoak eskatuko ditu.

c) Ordenantzaren 21. artikuluan eta Legearen 14. artikuluan onuradunei ezarritako eginbide guztiak bete beharko ditu, eta batez ere:

- Diru-laguntza eman duen erakundean justifikatu beharko du betekizunak eta baldintzak beteko dituela, hala nola jarduera burutu eta diru-laguntza emateak edo izateak zehazten duen helburua beteko duela.

- Eskumeneke erakundeak egin beharreko egiaztatze jarduerak onartuko ditu, eta eskatzen zaion informazioa ekarriko du.



- Beste diru-laguntza batzuk jasotzen baditu diru-laguntza eman duen erakundeari jakinaraziko dio, hala nola bestelako laguntzak, diru-sarrerak edo diruz lagunduriko jarduerak finantzatzen dituzten baliabideak. Hori guztia jakinarazi beharko da jakin bezain laster eta, hala balegokio, hartu beharreko diru-kopuruak kobratuko direla justifikatu aurretik.

- Frogatu beharko du (ordainketa bakoitza egin aurretik) egunean dagoela zerga eta gizarte segurantzako betebeharretan.

- Kontabilitate liburuak izango ditu, tramitaturiko erregistroak eta bestelako dokumentazioa behar bezalako auditoria eginda merkataritzako eta sektoreko legeak eskaturiko baldintzetan. Izan ere, era horretan helburu da egiaztatze eta kontrol eskumenak behar bezala burutuko direla bermatzea.

d) Jasotako diru-kopuruen aplikazioaren justifikazio dokumentuak gordeko ditu, dokumentu elektronikoak barne, egiaztatu eta kontrolatu daitezkeen bitartean, hau da lau urteko epean zehar, alegia.

- Jasotako diru-kopuruak itzuliko ditu, baldin eta Legearen 37. artikuluan aurreikusiriko egoerak gertatzen badira.

e) Hizkuntza ofizialak erabiltzearen alorreko klausulak: diru-laguntzaren entitate onuradunak diru-laguntza bidez eginiko ekintzen komunikazioetan honako irizpideak errespetatu beharko ditu.

- Idatzizkoari dagokionez:

- Hizkuntza paisaia:

Errotuluak, oharrak, iragarkiak, txartelak, publizitatea eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira.

Piktograma bidez egin ezin direnean, mezuak elebietan egingo dira euskarari lehentasuna emanaz (testuan lehenago kokatuta, letra handiagoa, beltzean) betiere Administrazioarekin aldeztu aurretik adostuta.

Diruz lagundutako ekintzan argitaratu eta herritarren eskura jarzen diren eskuorriak, iragarkiak, oharrak eta abar gutxienez bi hizkuntza ofizialetan egongo dira, euskarari lehentasuna emanda.

Harremanak Administrazioarekin: diru-laguntza eskatzeko tramitazioan idatzizko eta ahozko harremanak euskaraz egiteko saiakera egiteko eskatuko zaie, betiere kontuan izanda apirilaren 7ko 2/2016 Legeak eta azaroaren 24ko 10/1982 Legeak herritarrei administrazioan eskaerak bi hizkuntza ofizialetan egiteko eskubidea aitortzen dietela.



- Ahozkoari dagokionez:

Euskaraz komunikatu nahi duten herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko, herritarrekin egiten diren jardueretan, oro har, eta bereziki haurrekin egiten direnetan aritzen direnek bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko beharrezko gaitasuna izatea hobetsiko da.

Bozgorailuz egiten diren propaganda, abisuak, publizitatea eta abar bi hizkuntza ofizialetan egingo dira, azken kasu horretan euskarari lehentasuna emanda. Nolanahi ere, ekintzaren izaerak edo hartzaileen izaerak eskatzen duenean—euskara hutsez egingo dira euskararen erabilera sustatuko da.

Elkarteek antolatutako ekintza konkretuetan megafonia bidez emandako mezuek eta musika edo abestiek aurreko baldintza bera bete beharko dute.

Jendaurreko hitzaldi edo antzekorik antolatzen denean eta hizlaria euskalduna ez bada, laguntzaile euskaldun bat jartzeko eskatuko da, euskaldunen hizkuntza eskubideak errespetatzeko.

f) Berdintasunerako klausula: diru-laguntzaren entitate onuradunak bete beharko ditu Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako 4/2005 Legean, otsailaren 18koa, ezarritako oinarriak eta eginkizunak, emakume eta gizonen egiazko berdintasunerako.

Dokumentazioa guztiak, publizitateak, irudiak edo materialek hizkuntza ez sexista erabiliko dute, emakumeak diskriminatzeko edozein irudi edo estereotipo sexista saihestuko dute, eta berdintasun, presentzia orekatu, bestelakotasun, erantzunkidetasun, eta rol era genero-identitate aniztasunerako balioak sustatuko dituzte

g) Ingurumenaren alorreko klausula: diru-laguntzaren entitate onuradunak, oro har, ingurumeneko irizpideak hartu beharko ditu ondorengo alorretan: (1) aurrezte eta energia eraginkortasuna, (2) hondakinen frakzio ezberdinen kudeaketa eta bilketa, horiek sortzeari aurrea hartzeaz gain, (3) tokiko aniztasunari kalterik ez sortzea (habitat naturalak, espezieak eta prozesu ekologikoak), (4) baliabide naturalak aurreztea (ura, kontsumo iraunkorra), (5) sorturiko hondakin-uren behar bezalako bilketa, (6) mugikortasun iraunkorra sustatzea, eta (7) indarrean dagoen araudiak ezarritako gehienezko mugaz gaindiko zaratarik ez sortzea eta herritarrekiko eta ingurumenarekiko kalitate akustikoa bermatzea.

Paperezko euskarrian Udaletxean aurkeztu beharreko dokumentazioari dagokionez, % 100ean birziklatutako papera izango da, batere klororik gabekoa, eta bi aldeak inprimatuak.

h) Jarduera eta erabiliko hedabide guztietan (irradi, prentsa, kartel, eskuko programa, etab.) jasota utzi beharko da proiektua finantzatzeko Errenteriako Udalaren hitzarmena, esaldi honen arabera: “Errenteriako Udalaren laguntzarekin”. Esaldi horri Herribilduaren armarrria gehituko zaio, hedabidea idatzia bada. Baldintza hori bete beharko da laguntzaile bakarra Errenteriako Udala



denean, hala nola babesa beste laguntzaile batzuekin banatzen denean. Azken kasu honetan arestiko esaldiaren tamaina gutxienez erabiliko den handienaren adinakoa izango da.

Seigarrena: diru-laguntzari egin beharreko jarraipena eta justifikazioa

Errenteriako Udalak Udal Hizkuntza Politika saileko teknikari-koordinatzailearen bitartez, jarraipena egingo du eta diru-laguntzaren justifikazioa egokia dela egiaztatuko du, eta, era berean, jarduera gauzatu dela eta diru-laguntza eman edo izateko helburua bete dela.

Diru-laguntzaren entitate onuradunak, 2019ko otsailaren 28a baino lehen, Errenteriako Udalean aurkeztu beharko du diru-laguntzak xede duen proiektu/jardueren garapenaren memoria bat. Bertan buruturiko jardueren azalpen memoria bat egingo da, izaniko diru-sarreraren eta gastuen balantzea barne, hala nola egindako gastuak justifikatzeko ordain-agirien edo dokumentuen zerrenda bat ere aurkeztuko da. Ondoren Errenteriako Udalak zerrenda horretatik 30 fakturako lagin bat eskatuko dio onuradunari.

Gastuak egiaztatuko dira ordain-agirien edo merkataritzako trafiko juridikoan balio frogagarri baliokidea edo administrazio eraginkortasuna duten bestelako dokumentuen bidez.

Jarduerak, diru-laguntzaz gain, finantzatu direnean, norberak dituen diru-sarrerekin edo bestelako diru-laguntzekin edo baliabideekin, justifikazioan zenbatekoa egiaztatu beharko da, nondik datorren eta zein den diru-sarrera horien aplikazioa diruz lagunduriko jardueretan. Horretarako, elkarte edo entitatearen diruzainak izenpetutako ziurtagiria aurkeztu beharko da non jasoko diren diruz lagundutako jarduerak edo programak finantzatzeko laguntza guztiak, bai entitate publikoek zein pribatuek egindakoak, zein publikoak orokorrean eta bazkideek egindako ekarpenak ere.

Zazpigarrena: Bateragarritasuna beste diru-laguntza publikoekin

Hitzarmen honek arautzen duen diru-laguntza bateragarria izango da helburu bera duten bestelako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, bestelako administrazioetatik edo erakunde publikoetatik edo pribatuetatik datozenak.

Dena den, diru-laguntza hau bateraezina da helburu berarentzat Errenteriako Udaletik eta/edo bertako patronatuetatik datozen bestelako diru-laguntzak edo laguntzak hartzearekin. Era horretan, entitate onuradunak uko egiten dio edozein laguntza edo diru-laguntza motari egokituko ahalko litzaiokeena Udalaren departamentuek edo patronatuek diru-laguntzetarako eginiko deialdien arabera.

Hala guztiz ere, emandako laguntzen zenbatekoa, bakarrean edo batera, inola ere ezingo da izan diru-laguntzaren xedearen balioa baino handiagoa.



Zortzigarrena: Hitzarmenaren baldintzak aldatzea

Diru-laguntzaren entitate onuradunak Errenteriako Udalean eskatu ahal izango du, diruz lagunduriko jarduera burutzeko epea amaitu aurretik, hitzarmena hau aldatzea ezarriko epeak zabaltzeko, emaniko zenbatekoa gutxitzeko edo jarduera osatzen duten ekintzak aldatzeko. Aldaketa horiek baimenduko dira zergatia ustekabeko egoeretan gertatzen direnean edo jarduera behar bezala burutzeko beharrezkoak direnean, betiere diru-laguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez bada edo hirugarrenen eskubideak kaltetzen ez badira.

Errenteriako Udalak hitzarmen hau aldatu ahal izango du, onuradunari jakinaraziz eta diru-kopuruak aplikatu aurretik, hitzarmen hau onartzeko kontuan harturiko baldintzen aldaketak eragozten edo galarazten duenean lortu nahi den interes publikoaren lorpen-maila, eta onuradunari kalterik eragiten ez bazaio.

Bederatzigarrena: Hitzarmena ez betetzea eta diru-laguntza itzultzea

Diru-laguntzaren entitate onuradunak bete beharreko edozein eginkizun ez betetzeak ekarriko du diru-laguntza berrikustea edo indarrik gabe uztea, eta hala balegokio, emaniko diru-kopurua gutxitzea edo itzultzea. Hori guztia aurreikusita dago Ordenantzaren 23. eta 37. artikuluetan eta Legearen 37. eta hurrengo artikuluetan. Dena den, erantzukizunak eskatu ahal izango zaizkio.

Izaniko ez betetzeak mailakatzeko proportzionaltasun irizpidea erabiliko da.

Ezingo balitz edo interesik ez balego lan garapena jarraitzeko proiektuaren bideragarritasunari edo izaerari atxikiriko arazoak edo behar bezala justifikaturikoak bestelakoak direla-eta, bi aldeek adostu ahal izango dute hitzarmena bertan behera uztea edo etetea.

Hamargarrena: Datu pertsonalak babestea

Datu pertsonalak tratatuko balira, bi aldeek adosten dute Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 lege Organikoak ezarriko betetzea.

Hamaikagarrena: Lan arriskuen prebentzioa

Diru-laguntzaren entitate onuradunak, proiektuaren edo diruz lagunduriko jardueretan, indarrean dagoen araudia beteko du lan arriskuak prebenitzeko alorrean, azaroaren 8ko Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa, eta berau garatzeko araudia.

Hamabigarrena: Araubide Juridikoa

Hitzarmen honek administrazio izaera du, eta horregatik interpretazioa eta garapena arautuko dira ordenamendu juridiko administratiboak ezarritakoaren arabera.



Hitzarmen honetan jarri gabe geratu diren alderdi guztietan administrazio alorrean indarrean dagoen legeria ezarriko da eta, batik bat, Errenteriako udalean diru-laguntzak ematea arautzeko udal ordenantza, azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoa uztailearen 21eko 887/2006 Errege Dekretuan, non bertan onartzen den azaroaren 26ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Arautegia, urriaren 1eko 39/2015 Legean, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa eta urriaren 1eko 40/2015 Legean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa. Subsidiarioki, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira.

Hamahirugarrena: Eskumeneko Jurisdikzioa

Aldeen artean sor daitezkeen auziak ebazteko eskumena izango dute Administrazioarekiko Auzien Donostiako Epaitegiek, eta, era horretan bi aldeek onartzen dute epaitegi horien lurralde-eskumena

Aurreko guztiarekiko adostasuna erakusteko, parte hartzen duten aldeek **HITZARMEN** hau sinatzen dute, bi aletan eta eragin bakarrerako, idazpuruan adierazten den datan.

OIARTZUALDEAKO HEDABIDEAK S.M.,

Stua: Lierni Ormazabal Insausti

UDAL HIZKUNTZA POLITIKA SAILEKO
ZINEGOTZI ESKUORDETUA

Stua: Garazi Lopez de Etxezarreta